



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 18an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita bian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko azaroaren 29an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- E.V.S.L.k, Lasaon duten zentral hidroelektrikoaren hartunearen kanala konpontzeko (mendi-hegalaren ezegonkortasuna dela-eta) proiektua aurkezten du eta obretako udal baimena eskatu. Erabaki da jakinaraztea proiektua Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak bisatua behar duela eta pare bat gauza zehaztea falta dela.

3.- J.F.A.G.k, Sansineneako GRI Casting enpresak ateratzen duen zarataren inguruko kexa aurkezten du; baita argiteri berriaren ingurukoa ere. Erabaki da jakinaraztea Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera bidaliko duela zarataren inguruko kexa; baita Ingurumen Baimen Bateratuaren barnean, GRI Casting enpresak aurkeztutako azken Ingurumen Zaintzako programaren kopia eta bestelako dokumentazio eguneratua eskatzea; besteak beste, atmosferaren eta zarataren gainean ezarritako neurriak betetzen direla egiaztatzeko. Argiteriari dagokionez Zestoako Udalerrri guztiko argiteri publikoa Led sistemara pasa dela, eta aldaketa hau egin ondoren, udala kalez-kale azterketak egingo dituela zuzenketak egin behar diren gunek identifikatu eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

4.- S.S.P.k, 2019ko otsailaren 1etik 28ra bitartean, herriko plazan "txurreri" bat jartzeko udal baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea ez dela baimentzen txurreria jartzea.

5.- M.V.M.k, 2018ko azaroaren 1ean Iraetako Bekoetxeko bidegurutzean kotxea zuloan sartu eta aurreko gurgilaren kubiarta lehertu zela azaltzen du. Horrela, kalteak erreklamatzeko ditu. Erabaki da jakinaraztea Udalak ordainketa egin baino lehen, Ertzaintzaren parteak aurkeztu beharko duela Udalean.

6.- J.R.L.U.O.ri, Aoko Goikoetxen ukuiluaren teilatua aldatzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

7.- J.O.U.k, Araneta jatetxera herriko ura sare publikotik emateko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea Zestoako Udalak ez duela aurreikusten epe motzera eremu horretan ur-hornidura sarean berrikuntza edo zabaltze obrarik egiterik. Hala eta guztiz, J.O.k berak bere jarduerarentza ur-hodi berria pasatuko nahiko balu, Zestoako Udaleko ur hornidura zerbitzuak azalduko lioke zein puntutan egin beharko lukeen hartunea eta instalazioa zein baldintzatan egin.

8.- L.I.A.E.k, ondorengo eskaerak egiten ditu: frontoiko atzea pareta batekin ixtea, frontoian urak aldegiteko jarrita dagoen rejilla kentzea eta bizikleteroak jartzea. Erabaki da jakinaraztea frontoiko eskaerei dagokionez, Udala aurrekontuak eskatzen ari dela eta eskaturiko bizikleteroak jarrita daudela.

9.- J.M^e.Y.A.k, Toribio Alzaga kalea 18ko 1. argiztapen faltaren inguruko kexa aurkezten du. Erabaki du jakinaraztea Zestoako Udalerrri guztiko argiteri publikoa

Led sistemara pasa dela, eta aldaketa hau egin ondoren, udala kalez-kale azterketak egiten ari dela zuzenketak egin behar diren guneak identifikatu eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

10.- F.A.P.k, Urdanetabidea 8an teilatu zati bat kendu eta terraza egiteko udal baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea proposatzen duen obra baimengarria dela eta eta obra egin aurretik, dagokion proiektua aurkeztu beharko duela Udalean.

11.- E.J.O.S.k, Sansineneako M.T.S.L.k aurkeztutako legeztapen proiektua aztertu ondoren, aldeko txostena igortzen du. Erabaki da berri ematea eta tramitazioarekin jarraitzea.

12.- E.J.O.S.k, Agoteko G.F.S.L.k aurkeztutako legeztapen proiektua aztertu ondoren, aldeko txostena igortzen du. Erabaki da berri ematea eta tramitazioarekin jarraitzea.

13.-G.F.A.B.A.D.k, Arroa Behean, N-634 eta GI-631 errepideen artean biribilgunea egiteko obrak kontratatzeke baldintza administratiboak onesten ditu. Erabaki da berri ematea.

14.- G.F.A.B.A.D.k , Arroa Behean, N-634 eta GI-631 errepideen artean biribilgunea egiteko Udalak 1.448,35 m2ko lagapena egiteko hartutako erabakia onartzen du. Erabaki da berri ematea.

15.- J.R.G.k, Arroa Beheko biribilgunearen inguruko bilera eskaera egin zutela eta erantzuna eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea bilera bat egingo dela abenduaren 20an.

16.- E.k, Alonderoneko aldapan igogailua jarri ondoren, bertako espaloian mugikortasun gutxiko pertsonentzako trabak daudela eta igatzia jaso dutela adierazten du. Zehazki, espaloian bertan, barandaren ondoren dagoen farola. Erabaki da jakinaraztea E.E.k aurkezturiko Idiazpi eta Zubimusu kaleek irisgarritasun arloan zituzten gabeziak ikusita, udalak erabaki zuela igogailu publiko bat eraikitzea aipaturiko kale hauek herriko erdigunearekin lotzeko. Igogailua erabiliz gero, ibilbide guztiak irisgarritasun baldintzak betetzen ditu.

17.- E.A.B.J.k, M.S.A.k kalean izandako erorketa baten ondorioz aurkeztutako erantzunkizun patrimonialeko erreklamazioaren inguruko diktamena aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea eta Udal Batzarrak erabakia hartzea.

18.- Z. eta L.Z.O.ri, Buskandegi kaleko Telleria baserria eraberritzeko udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

19.- K.M.U.k, Zubimusu kalea 7an duen garajea dela eta idatzia aurkeztu du: nahiz eta garajearen sarreran badoa azaldu eta marra horia margotuta egon, kotxeek aparkatu egiten dute. Beraz, piboteak jartzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea Zubimusu kalean lehen ere pibote ugari jarri direla, eta proposatzen diren piboteek oinezko ibiltzaileei oztopo egiteko arriskua ikusten duela udalak. Udaltzain zerbitzuari arazo honen berri emango zaio, jarraipen zorrotzagoa egiteko.

20.- L.ri, Zestoako zezen plazarako egin zituzten lanak bukatuta daudenez, abala itzultzea.

21.- B.1991 SLri, Sansinenean duten pabiloian egin beharreko obrak amaitu dituztela eta hondakinen kudeaketaren abala itzultzea.

22.- G.G.A.K.E.ri, Zestoako udal mapa toponimikoa, GIS azpiegitura eta bisore korporatiboa egiteko lanak esleitzea.

23.- M.A.A.k, frontoi zaharreko paretaren aurka komun publikoa jartzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea udal honek informazioa eskatu izan duela, eta ideia hau bere aurrekontu altuagatik baztertu izan dela. Beraz, momentu honetan ez da posible ikusten mota honetako komun bat jartzea frontoi zaharreko paretaren atzean.

24.- M.A.I.k, Zubimusu kalean trafikoarekin dagoen arazoaren inguruan, Udalak hartutako erabakia oraindik bete gabe daoela jakinarazten du, eta Gurutze kalea eta 3tik Unide dendaraino espaloiko argia aztertzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea lehen hartutako erabakiak lehen bait lehen aurrera eramango direla, Zubimusu kalearen hasieran (Arozena aldetik) eta amaieran (Idiazpi aldera), gehienezko abiadura 30 km/ordutara mugatzen dituen 2 seinale jartzea eta argiteriari dagokionez, udala kalez-kale azterketak egiten ari dela zuzenketak egin behar diren guneak identifikatu eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

25.- E.enpresak, Lasako Estanko Etxean itxitura egiteko udal baimena eskatzen du. Bestalde, farolak aldatu eta mugitzeko aukera aztertzea ere eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea itxitura egiteko baimena ematen dela, baino lehenaga aurrekontua aurkeztu behar dela. Bestalde, Udalak hitzordua jarriko du enpresarekin farolen lekualdaketa aztertzeko.

26.- E.E.S.L.ri F.Z.L.ren izenean, Lasako Estanko etxean teilatua eraberritu eta igogailua jartzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

27.- J.I.L.ri, Iraetabidea 12ko eskubian, biltegiko lurra konpontzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

28.- R.M.U.k, azaroaren 30ean, goizeko 11:00etan, A. SL enpresa oso zarata maila altua emititzen ari zela jakinarazten du. Erabaki da jakinaraztea enpresa jarduera baimena tramitatzen ari dela. Tramitazio prozedura honen barnean, soinu neurketak eskatuko zaizkio, enpresa akreditatu batek eginak, eta makinaria %100 martxan dutela.

29.- F.P.A.k, A.SL enpresaren zarata neurrien inguruko kexa aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea enpresa jarduera baimena tramitatzen ari dela. Tramitazio prozedura honen barnean, soinu neurketak eskatuko zaizkio, enpresa akreditatu batek eginak, eta makinaria %100 martxan dutela.

30.- I.S.I.k, azaroaren 30ean A.SL enpresatik zetorren zarata maila neurtu zutela eta emaitzaren inguruko datuak aurkezten ditu. Erabaki da jakinaraztea enpresa jarduera baimena tramitatzen ari dela. Tramitazio prozedura honen barnean, soinu neurketak eskatuko zaizkio, enpresa akreditatu batek eginak, eta makinaria %100 martxan dutela.

31.- A.T.T.S.L. enpresaren jarduerak zarata handia sortzen duela eta hainbat kexa jaso dira Udalean. Erabaki da enpresari jakinaraztea zaratak mugatu behako dituela eta hala ez balitz, Udalak berak edozein momentutan soinu neurketak egingo dituela eta proba hauen emaitzak ez badira egokiak, enpresa ixteko aukera aztertuko dela.

32.- H, y M.A.S.L.U.k jarduera lizentzian "hormigoi kalizoa" agertzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea jarduera lizentzian hormigoi kaliozoaren produkzioa baimentzen dela, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

33.- A.G.L.k, abenduaren 6an Ederra Morteros y Revocos enpresak Iraetan duen instalazioetan egin zuten gai kimiko eta zaborren erreketak dela-eta, bere kexa aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea enpresari jarduera baimenean ezarritako neurri zuzentzaileak gogoraraziko zaizkiola idatziz, eta hondakinen erreketak egiten jarraitzen badu, egokitzen zaizkion isunen berri emango zaiola.

34.- S.F.A.k, kiroldegiko eraberritze obren 10. zertifikazioa aurkezten du eta ontzat ematen da.

35.- Arroabeko San Isidro 6 zk.aren ondoan dauden 2 piñuren egoera. San Isidro 6 zk.aren kokatzen den eraikinaren bi aldeetan 2 piñu haundi daude. Hegoaldera dagoen piñuak dagoeneko 1. solairuko balkoia jotzen du. Iparraldera kokaturik dagoen zuhaitzak teilatu-hegala jotzen du haizeteak direnean. Erabaki da Kimu Bat enpresari aurrekontua eskatzea, 2 piñuak botatzeak zein kostu ekonomiko duen jakiteko. Bestalde, Kimu Bat

enpresari aholkua eskatuko zaio, hegoaldeko piñua bota ondoren, zein zuhaitz landatzea proposatzen duen jakiteko.

36.- J.M.Z.k, Olaizola eta Uria 6 zk.an dagoen baserriaren eraberritze data aztertze eskatzen du, EITa noiz egin behar duen zehazteko. Erabaki da jakinaraztea, espedientean begiratu ondoren, 1996ko azaroaren 2tik hasia 50 urteak.

37.- I.I.U.k, Olaizola eta Uria 10 zk.an dagoen baserriaren eraberritze data aztertze eskatzen du, EITa noiz egin behar duen zehazteko. Erabaki da jakinaraztea, espedientean begiratu ondoren, 2011ko apirilaren 20tik hasia 50 urteak.

38.- B.G.E.k, Gesalaga kalea 1 2 C etxebizitzako leihoak aldatzeko baimena eman zion Udalak eta tasa ordaindu zuen. Leihoak tasatik salbuestea eskatzen du, fatxada direlako. Erabaki da Hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea gaia, , inguruko beste udaletan kontsulta egin ondoren.

39.- N.E.k, eskola aurreko aparkalekuan bi edo hiru aparkaleku gurasoentzat jartzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Zestoako herrigunean dugun aparkaleku arazoak ikusita, zailtasunak ikusten direla gunen honetan 2 edo 3 aparkaleku gurasoentzat gordetzeko.

40.- M^a.I.K.U.k, Zubimusu kalean kotxeak abiadura handian ibiltzen direla-eta, gaia aztertzea eskatzen du. Erabaki da Zubimusu kalearen hasieran (Arozena aldetik) eta amaieran (Idiazpi aldera), gehienezko abiadura 30 km/orдутara mugatzen dituen 2 seinale jartzea.

41.- Enekosauztegi kaleko aparkalekuen diseinua. Gaur egun Enekosauztegi kaleko aparkalekuak "bateria" sisteman aparkatzeko egokiturik dago, baina oso desegokia da. Espaloien gainera igo behar da autoaren zati bat eta marrak ere ez daude margoturik. Enekosauztegi kaleko aparkalekuak "linea" sisteman margotzea aztertuko da. Hurrengo hirigintza batzordean aztertuko da zenbateko aparkaleku galera dagoen, eta egokia ikusten den aldaketa.

42.- A.M.I.L.k, Zubimusu kalea 14-18ko jabeekideen izenean, egutera aldera dauden zuhaitzen inguruko kexa aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea ibai ertzeko pasabidean alde batetik farolen artean zuhaizkak (*arbustoak*) daude eta udalak udazken-negu honetan zuhaizka hauek kimatu eta txukuntzea aurreikusten duela. Zuhaitz handiei dagokionez, ez da kimaketarik egitea aurreikusten.

43.- Aditek enpresaren jardura baimenaren prozeduran, alegazioei erantzuna. Udal arkitektoak alegazioei erantzuteko proposamena prestatu du eta alegazioen erantzun proposamena hartuta 3 alegazioak erantzun ditu Zestoako Udalak.

44.- Juan Erentxun kalea 2 zk.an dagoen eraikinaren inguruan Zestoako Udalaren eta artzapezpikutzaren arteko hitzarmena. Zenbat zurrumurru izan diren arren, Gipuzkoako Artzapezpikutzak hitzarmenarekin aurrera jarraitu nahi du. Aragoiko bizilagunek alegazioak aurkeztu zituzten hitzarmen honen inguruan. Erabaki da alegazioak erantzun baino lehen, Aragoiko bizilagunekin bilera bat egitea.

45.- Zestoako Harrobiaren egoera. M.A. zinegotziak hurrengo hirigintza batzorde batean Zestoako harrobiaren gaia sartzea eskatu du.

46.- 2018ko abenduaren 13ko Hirigintza Batzordeko aktaren zuzenketa. M.A. zinegotziak, 2018ko abenduaren 13ko Hirigintza Batzordeko aktan, lehenengo puntuko 5. parrafoan ondorengo zuzenketa egiteko eskaera egin du: *Gaur egungo jardura ontzat eman arren, batipat, handitzeak sortzen dio kezka. Eta bestalde, gai honek dituen aurrekariak izan ditzakeen arriskuenak.*

Batzorde informatiboaren bileren akten onarpenera: ez dago.

ALKATETZA EBAZPENAK. Honako Ebazpenen berri eman da:

- * 234 zk, Central Forestal S.A.ri udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egiteko lizentzia ematea.
- * 235 zk, Asuntzio kalea 4 zk EIT egiteko errekerimendua onartzea, bi hilabeteko epea emanez.
- * 236 zk, Asuntzio kalea 13 zk EIT egiteko errekerimendua onartzea, bi hilabeteko epea emanez.
- * 237 zk, Santakurutz kalea 9 zk EIT egiteko errekerimendua onartzea, bi hilabeteko epea emanez.
- * 238 zk, Santakurutz kalea 13 zk EIT egiteko errekerimendua onartzea, bi hilabeteko epea emanez.

ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

-E.A.E.J.S.k, hainbat eragilek Zestoako Arau Subsidiarioetako 2.aldaketari, Agote areako A.G.1.1.-Agote eta A.G.1.2 Agote II jarritako errekurtsua ezesten dela jakinaraziz.

- G. G. O.k ofizioa igortzen du, udal aktak aplikazio bidez bidaltzeko eskaera eginez.

- U.U.A.k, 2017ari dagokion Uraren Kanonaren kudeaketatik Udalak jaso beharreko konpentsazioari buruzko idatzia aurkezten du.

- E.J.G.P. eta A.S.k, Toki erakundeetako akta-liburuetarako zenbakidun paperak telematikoki eskatzeari buruzko informazioa igortzen du.

6.- GALDERA ETA ERREGUAK

Ez dago.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko 14:15ak direnean, nik neuk,

Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,